



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko otsailaren 8a

14. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Nafarroako ubidearen eremu ureztagarriari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Nafarroako ubidearen eremu ureztagarriari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko urriaren 5ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik Kontuen Ganberak emandako fiskalizazio txostena, Nafarroako ubidearen eremu ureztagarriari buruzkoa, ERABAKI DA:

**1.** Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

**2.** Erabakia Nafarroako Parlamentuaren Aldizkari Ofizialean argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2015eko urriaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Nafarroako ubidearen eremu ureztagarriari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina**

### **AURKIBIDEA**

- |  |  |
|--|--|
| <p><b>I.</b> Sarrera (3. or.).</p> <p><b>II.</b> Nafarroako ubidearen eremu ureztagarria (3. or.).</p> <p><b>III.</b> Helburua eta norainokoa (6. or.).</p> <p><b>IV.</b> Mugak (6. or.).</p> <p><b>V.</b> Ondorio orokorrak eta gomendioak (7. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.1 Ondorioak (7. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">V.2. Gomendioak (9. or.).</p> <p><b>VI.</b> Aztertutako alderdiei buruzko iruzkinak (10. or.).</p> | <p><b>VI.1.</b> Azpiegituren kostua dela eta (10. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.1.1. Itoizko urtegia (10. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.1.2. Nafarroako ubidea (11. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.1.3. Nafarroako ubidearen eremu ureztagarria (13. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.1.4. Lur-zatietan ureztaketa jartzea (14. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.1.5. Ureztaketak erabiltzaileentzat duen kostua. (15. or.).</p> <p><b>VI.2.</b> Emaitzak (16. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.2.1. Lur-zatien bilakaera (16. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.2.2. Ur kontsumoa (17. or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.2.3. Laboreen bilakaera (19 or.).</p> <p style="padding-left: 20px;">VI.2.4. Lortutako emaitzak (21. or.).</p> <p style="padding-left: 40px;">VI.2.4.1. Nekazaritza-produkzioaren balioa (21. or.).</p> <p style="padding-left: 40px;">VI.2.4.2. Lortutako etekinak (23. or.).</p> <p style="padding-left: 40px;">VI.2.4.3. Enpleguaren gaineko eragina. (25. or.).</p> <p style="padding-left: 40px;">VI.2.4.4. Udalen diru-sarrerak (28. or.).</p> <p><b>VI.3.</b> Ureztatzearen kostuaren alderaketa (29. or.).</p> <p>Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (30. or.).</p> <p>Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (30. or.).</p> |
|--|--|

## I. SARRERA

2014ko apirilaren bian, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak eskatuta, Nafarroako Kontuen Ganberan sartu zen atxiki gabeko foru parlamentari batek egindako eskaera, txosten bat egin genezan Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarrian egindako inbertsioari, espero diren etekinei eta betetze-mailari buruz. Eskaerak bi helburu handi planteatzen ditu: laboreak ureztatzeko behar diren azpiegituren guztizko kostuak ezagutzea; eta ekoizpenei, enpleguari eta abarrekoiei dagokienez espero diren eta erdietsi diren etekinak ezagutzea.

Halaber, plantatzen du ureztalur hauek daukaten kostua Ebroko ibai arroko beste ureztalur batzuen kostuarekin alderatzea.

Eskari hori betetze aldera, Kontuen Ganberaren fiskalizazio programan sartu zen lan hori egi-tea.

Txostenak bost atal ditu, sarrera honetaz gainera. Bigarrenean, labur azaltzen dira Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriaren ezaugarri nagusiak. Hirugarrenean, lanaren helburua eta norainokoa azaltzen dira; laugarrenean, berriz, txostenaren mugei buruzko iruzkina ageri da. Bosgarrenean, egindako lanetik heldu diren ondorio eta gomendio nagusiak jasotzen dira. Seigarrenean, azkenik, aztertutako alderdiak garatu eta iruzkintzen dira.

Azterketa-lana 2014ko azarotik 2015eko maiatzera egin zuen auditoriako bi teknikarik eta auditore batek osatutako lantaldeak, Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntzarekin.

Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriari buruzko gai batzuk Kontuen Ganberaren honako txosten haueetan aztertu dira:

- Bideko autobiatik, Nafarroako ubideko eremu ureztagarrietatik eta funtzionarioen montepio-tik etorkizunean sortuko diren gastuak (2007ko iraila).
- Itzaleko bidesaria (2014ko abendua).
- Nafarroako ubideak ureztatuko duen eremuko zabalpenaren esleipena (2015eko martxoa).
- Itzaleko bidesariari buruzko aholku txostena (2010eko ekaina).

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik, eskerrak eman nahi dizkiegu honako haue-tako langileei: INTIA enpresa publikoa, Sustapen Departamentua, Landa Garapeneko, Ingurume-neko eta Toki Administrazioiko Departamentua, Gizarte Segurantzza, Trabajos Catastrales de Na-varra (Tracasa) enpresa eta Ubideko Ureztatzaileen Elkarteak.

## II. NAFARROAKO UBIDEAREN EREMU UREZTAGARRIA

Bat baino gehiago dira ubidearen eragin-eremuan dauden lurak ureztatzeko beharrezkoak di-ren obrak: Itoizko urtegia, Nafarroako ubidea, eremu ureztagarriko sistema orokorrak eta, azke-nik, lur-zatietan hainbat ureztatze-sistema ezartzea.

Itoizko urtegia XX. mendeko azken urteetan egin zen, eta Irati ibaia, Ebro ibaiaren ibaiadarra, erregulatzen du. 418 hektometro kubikoko urtegi-edukiera dauka, eta haren exekuzioa eta finan-tzaketa Estatuak egin zuen, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren bitartez. Nafarroako Gobernuak zenbait azpiegitura osagarri (errepideak) egin ditu.

Nafarroako Ubidearen eraikuntzaz eta ustiaketaz –uztailaren 8ko 22/1997 Legearen bidez in-teres orokorrekotzat deklaraturako proiektua– Estatuak “Canal de Navarra, S.A.” (Canasa) en-presa arduratzen da. Haren kapitalean Estatuak zein Nafarroako parte hartzen dute “Aguas de las Cuencas de España, S.A.” sozietateen bitartez, kapitalaren ehuneko 60arekin, eta Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, S.L.U.k gainerako ehuneko 40arekin.

Ubideak 170 km-ko luzera aurreikusia du, eta ura Itoiztik Ablitas herriraino eramaten du; ho-rrek aukera emanen du 53.000 hektarea inguru ureztatzeko. 2007ko abenduaren 31n, jarduketa-eremua guztira 59.000 hektarea hartzeraino zabaldu zen.

Ubidearen eraikuntzan bi fase zeuden aurreikusita; gaur egun, lehenengoa egin da, Aragoi ibairainokoa, eta aukera ematen du 22.500 hektarea inguru ureztatzeko eta Iruñeko eta Mairagako mankomunitateak urez hornitzeko.

Bigarren fasea egiteari ekin gabe, lehenengo fasearen zabalpen bat proiektatu da, Arga eta Ega ibaien lurraldeetara zuzendua; zabalpen horrek aukera ematen du beste 15.000 hektarea ureztatzeko; horren esleipena 2014ko apirilean egin da.

Hartara, azkenean, aurreikusi diren 59.000 hektarea horiek honela azpibanatzen dira:

- Lehenengo fasea: 22.500 hektarea.
- Lehenengo fasearen zabalpena: 15.000 hektarea.
- Bigarren fasearen aurreikuspena: 21.500 hektarea.

Eremu ureztagarriko obrekin ura ubidetik finketara eramaten da.

Eremu ureztagarriko lehenengo fasea 30 urtetarako emakida baten bitartez (2006-2036) egin zuen Nafarroako Gobernuak; fase hori hainbat tartetan azpibanatu da, eta tarte horiek pixkanaka hasi dira funtzionatzen 2006tik.


Horretarako, lur-zati berrantolamenduko lanak egin ziren, bai eta behar ziren obra hidraulikoak ere, eta ur-harguneak ezarri ziren; horietako bakoitzak 5 eta 7 hektarea bitarteko azalera ureztatzeko aukera ematen du.

Lur-zatien jabeek, obrak hasi baino lehen, kopuruaren ehuneko 15 ordaindu zuten, eta gainerakoa Gobernuak finantzatu zuen honela azpibanatutako kanon baten bitartez: hektarea bakoitzeko ordainketa finko bat eta ur-kontsumoarengatik beste ordainketa bat, aldakorra.

Enpresa emakidadunarekiko kontratuan, halaber, instalazioen mantentzea sartzen da; mantentze hori jabeek ordaintzen dute kasuko kanonaren bitartez.

Azkenik, jabe bakoitzak, ur-hargunetik abiatuta, instalazioa egin beharra dauka ureztatu beharreko lur-zatietan barna. Logikoa denez, hautatutako sistema (tantaka, ihinztadura) kasuko laborearen arabera izaten da, eta finantzaketa jabearen bizkar uzten da; halere, exijitzen diren baldintzen arabera, jabeek nekazaritza-ustiategien hobekuntzarako unean uneko laguntza publikoak eska ditzakete.

Erantsitako planoan ikusten da non dauden Itoizko urtegia, Nafarroako ubidea, eremu ureztagarriaren lehenengo fasea (jada eraikia) eta lehenengo fasearen zabalpena (esleitura), bai eta bigarren fasea ere.



### III. HELBURUA ETA NORAINOKOA

Txosten honen helburua da erantzuna ematea arestian aipatutako parlamentu-eskaerari, eta zehazki honako hauek aztertzea:

- Lursailak ureztalur bihurtzeko behar diren azpiegituren kostua.
- Eraldaketa horren ondorioz produkzioan, enpleguan eta udalen diru-sarreretan lortu diren emaitzak.
- Ubideko ureztalurren kostuaren eta bestelako ureztalurren kostuaren alderaketa.

Lehenengo faseko datuetan zentratuko gara, zeren eta hori baita une honetara arte egin dena, ubidearen zabalpena 2014an esleitu baita eta bigarren fasea hasi gabe baitago.

Lan hau egiteko INTIAk eman digun informazioa egiaztatu dugu, eta hura osatu dugu Susta-peneko eta Landa Garapeneko departamentuei informazioa eskatuz, bai eta Tracasa enpresa publikoari, Gizarte Segurantzari eta Ureztatzaileen Elkarteari ere; halaber, azken horretako kide-ekin bilera batzuk egin ditugu.

Lana Espainiako Estatuko Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauei jarraituz gauzatu da; arau horien barruan, "Fiskalizazio operatiboaren eta haren aplikagarritasunari buruzko oinarrizko printzipioak" izeneko ISSAI-ES 300 araua aplikatu da.

### IV. MUGAK

Txostena honako alderdi hauek mugatu dute:

- Honelako ezaugarriak dituen azpiegitura baten emaitzak baloratzeko ustiapen-denbora gehiago behar da.
- Alderaketa batzuk egiten zailak dira, zeren eta ez baitakigu zer gertatuko zen, inguruabar jakin batzuetan, azpiegitura existitu izan ez balitz. Esate baterako, nolako uzta lortuko zen lehor-teko urte batean.
- Norainoko hau daukan lan batean, ezin dugu landu azpiegitura honek beste esparru batzuetan (nekazaritza-industria) daukan eragina, ez eta zuzeneko eragin-eremuaz kanpoko beste herri batzuetan daukana –halakorik ere bai baitago, zalantzarik gabe–.

Muga zorrotzak ez badira ere, lan honetan kontuan hartu beharreko inguruabar batzuek eragiten dute; besteak beste:

- Azpiegiturak epe luzera egiten dira, eta haietan zenbait erakundek eta partikular askok hartzen dute parte; hori dela eta, datuak hainbat erakundetan daude eta, logikoa denez, ez dira landu irizpide homogeenok erabiliz eta hainbat urteri buruzkoak dira. Hori guztia kontuan hartu beharrekoa da zenbait kalkulu baloratzeko garaian.
- Alderdi batzuk baloratzeko, zenbatespenak egin behar dira. Hartara, esate baterako, kontsumitutako uraren arabera ordaindu beharreko kanonak eta aldagai batzuen (KPIa) bilakaera, edo Administrazioak jabeen eman diezazkiekeen laguntzak, ustiategietan egiten dituzten inbertsi-oengatik.

Horri dagokionez, esan beharra dago jada eman diren laguntzak hainbat planen bitartez eman direla eta ez zaizkiola soilik aplikatzen azpiegitura honek egindako inbertsioari, baizik eta onuradunaren ustiapen osoari.

Alderdi horiek guztiek zaildu egiten dute zenbait kalkulu egitea.

- Azterlanetan erabilitako datuak ez datoz beti bat. Hartara, esate baterako, batzuetan urte naturalean kontsumitutako ura erabiltzen da irizpide gisa, eta beste batzuetan, berriz, nekazaritza-kanpainan (urritik irailera) erabili dena. Antzeko zerbait gertatzen da hektareekin, zeren eta

desberdinak izaten baitira: ukitutako guztiak, ureztalur bihurtu direnak, landutakoak eta abar; halaber, kontuan hartu beharra dago nolako balorazioa egiten den uzta bikoitza dagoen kasuetan.

- Zenbait alderaketa teoriko hutsak dira. Esate baterako, ekoizpenak alderatzea ubidea egin aurretik zeuden laboreekin lortuko zirenekin, egungo ekoizpen eta prezioak erabiliz.

- Emaitzen balorazioan, eragin berezia dute nekazaritza-produktuen prezioek, zeinak asko aldatzen baitira urtetik urtera; gainera, nekazariak, oro har, haietan eragimena izateko aukera gutxi izaten du.

Hala eta guztiz ere, ulertzen dugu lan honetan aurkezten diren datuek behar adina informazio badaukatela zenbait ikuspuntutatik ureztatzeko azpiegituren eraikuntzaren balorazioari eta haren onurei buruzko hurbilpen bat egiteko.

## V. ONDORIO OROKORRAK ETA GOMENDIOAK

Atal honetan, egindako lanetik ateratzen diren ondorioak aurkeztuko ditugu, bai eta gomendio nagusiak ere.

Ondorioak iruzkintzen hasi baino lehen, honako zehaztapenak egin beharrean gaude.

- Ura ondasun estrategiko bat da, eta etorkizunean are estrategikoagoa izanen da. Horrenbestez, beste gogoeta batzuetan sartu gabe, ur-erreserbak edukitzea positibotzat jo beharra dago.

- Magnitude hau daukan azpiegitura baten eraginak epe luzekoak dira<sup>1</sup> eta epe luzera aztertu behar dira. Errealitate poliedriko bat dira, hainbat aldagaitan eragina duena, eta, horregatik, osotasunean begiratu behar zaie haien emaitzei buruzko balorazio bat egiteko.

- Kostu kuantitatiboak alde batera utzita, kostu kualitatibo batzuk ere badaude, neurtzen oso zailak direnak (herrien desagerpena), pertsona oso gutxiri eragiten diotenak baina azpiegitura honek gizarte osoarentzat daukan eraginarekin konpentsatu behar direnak.

### V.1 ONDORIOAK

1) Azpiegituren haren finantzaketaren multzoaren kostua 1.050,6 milioi eurokoa da, kontuan hartuta hainbat entitate edo administrazioek burutu dituztela, eta kontuan hartuta, halaber, jabeak oraindik lur-zatietan ureztatzea jartzen ari direla eta azpiegituretako bat edo beste itzaleko bidesariaren bitartez finantzatzen dela. Honako hau da kostu horren xehakatzeara:

Obra	Kostua	Estatua	Finantzaketa	
			Nafarroa	Erabiltzaileak
Itoitz <sup>2</sup>	298,1	210,3*	87,8	*
Ubidearen 1. fasea	486,7	146,0	97,3	243,4
Eremu ureztagarria	184,6		170,3	14,3
Instalazioa	81,2		34,9	46,3
<b>Guztira</b>	<b>1.050,6</b>	<b>356,3</b>	<b>390,3</b>	<b>304</b>

\* Estatuak, Itoizko erabiltzaile guztien artean inbertsioaren ehuneko 70 jasanarazten du 50 urtetan zehar. Ubideko ureztalurrek Itoizko kontsumoei esleitutako balioaren heren inguru egiten dute.

Datu horiek direla eta, ondokoak adierazi behar ditugu:

- Ubidearen ehuneko 50 Estatuak eta Nafarroak jarritako kapitalaren bitartez finantzatzen da, eta gainerako ehuneko 50a, berriz, erabiltzaileei jasanarazten zaien kanpoko finantzaketaren bitartez.

<sup>1</sup> Hartara, esate baterako, Aragoiko Ubide Inperiala, Fontellas eta Fuentes de Ebro artekoa, 1776tik 1790era eraiki zen, eta gaur egun zerbitzuan jarraitzen du.

<sup>2</sup> Itoizko dike osagarria sartu gabe.

- Eremu ureztagarriaren datuak hasierako kostuari dagozkionak dira, zeren eta itzaleko bi-desariaren bitartez finantzatu baitzen eta egiazko ordainketak emakidan aurreikusitako aldagaien jokabidearen arabera baita.

- Ureztatze-sistema lur-zatietan instalatzearen kostuari buruzko datuak teorikoak dira hektarearen guztientzat, instalatutako hektareen kostuen eta Landa Garapeneko Departamentuak emandako diru-laguntzen arabera.

Adierazi nahi dugu Itoitz-Nafarroako Ubidea Fundazioak guztira 17 milioi euro egiten duten inbertsioak egin dituela eskualdean; horietatik, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak 9,3 milioi jarri ditu eta Fundazioak, berriz, gainerako 7,7ak, Nafarroako Gobernutik eskuratuta. Ganberak, 2015eko abuztuan, horri buruzko txosten bat argitaratu du. Horretara jotzea gomendatzen dugu.

2) Inbertsio eta funtzionamendu-gastu horien zati batek erabiltzaileengan duen eragina urtetik urtera aldatzen da gastuen eta kontsumoen arabera. 2013an, 4.500 m<sup>3</sup>-ko ur-kontsumoa duen hektarea batek 281,96 euro ordaindu zituela; honela banatzen da kopuru hori:

	Ehunekoak
Ebroko Konfederazio Hidrografikoa	12
Canasa	68
Aguacanal	8
Ureztatzaileen Elkarteak	4
BEZa	8

3) Laboreei dagokienez, adieraz dezakegu funtsean hiru labore mota ekoiztetik 48 labore inguru ekoiztera pasa dela. Landatuena, gaur egun, artoa da, lehenago existitzen ez zen laborea. Halere, adierazi ahal dugu, halaber, artoa sartu dela lehenago landatutako zerealekin antzekoena delako, eta labore berri gehienak zabalera gutxikoak direla.

Ondorengo taulan eraldaketa hori laburbiltzen dugu:

	Hektareen guztizko ehunekoak	
	2003	2013
Garagarra	60,5	12,1
Lugorriak	13,2	5,4
Mahastia	10,3	10,3
Garia	9,0	6,2
Arto aleak		34,7
Barazkiak (19 labore)	3,1	14,8
Bestelakoak	3,9	16,5
Guztira	100	100

Horrenbestez, laboreak aldatzeko prozesu bat hasi da. Horretan eragina du nekazariarentzat ez dela erraza aldaketa hori egitea, dauzkan ohiturengatik eta ezagupenengatik, eta aldatetako inbertsio berriak egitea eska dezakeelako. Gainera, laboreei buruzko erabakiek prezioen eta labore desberdinen etekin-tarteen eragina izaten dute –eta halakoak nabarmen aldatzen dira–, bai eta diru-laguntzen eragina ere.

4) INTIAk egindako azterlan horietatik, 2013an lortutako enpresa-etekinak eraldaketaren aurreko laboreetatik lortuko zirenekin alderatuta, ondorioztatzen da ezen 15 milioi egin dutela gora –ehuneko 507 da hori–, baina sektoreetan dispersio handia dagoela –ehuneko -25etik ehuneko +1.958ra bitartekoa–.

Aldaketa horien arrazoen azterketan sakondu beharra dago, bereziki ezarritako laboreei dagokienez, baldin eta hurrengo ekitaldietan eusten bazaie.

Bestalde, zehaztu beharra dago nekazaritza-prezioek eragina izan dutela emaitzetan, eta urtetik urtera gertatu diren aldeak oso handiak izan direla. Hartara, Ureztatzaileen Elkarteak 2014ko prezio eta produkzioekin egindako azterlanetan, zenbait produktutan errentagarritasun negatiboak lortzen dira.

Horri dagokionez, 2009-2014 urteetan hiru produktu nagusiren prezioetan izandako aldeak nabarmendu behar ditugu:



	Euroak ehun kilogramoko					
	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Garia	14,07	16,83	21,39	24,11	20,74	18,36
Garagarra	12,50	17,05	20,00	23,06	16,97	16,33
Artoa	14,47	16,75	22,51	22,79	21,60	17,58

5) Inbertsioak amortizatzeko epeak txikiagoak dira haien bizitza erabilgarria baino, bereziki ubidearen kasuan. Horrek berarekin ekartzen du egungo belaunaldia gainkostu bat pairatzen ari izatea, eta horri inbertsio pribatuen kostua gehitu behar zaio, labore-aldaketarako egin beharrekoa.

Amortizazio-kostu horiek nabarmenak izan daitezke nekazaritza-produktuek behera egin duten urteetako ustiaketa-kontuan.

6) Muga batzuk badaude azpiegitura hau zerbitzuan jartzeak enpleguan duen eraginari buruzko egiazko balorazioa egiteko, bai eta beste herri batzuetan edo nekazaritza-industrian duen eragina baloratzeko ere.

Egin ditugun azterlan eta azterketak partzialak dira; urteko azken egunean Nekazaritzarako Gizarte Segurantzaren afiliatutakoen datuei buruz egindakotik ondorioztatzen da ubideak ukitutako herrien jokabidea hobea dela Nafarroako batez bestekoarena baino, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

	14-05 aldearen ehunekoa	
	Nafarroa	Eremu ureztagarria
Beren kontura afiliatuak	-30,4	-18
Besteren kontura afiliatuak	+9,5	+8
Guztira	-14	-6

7) Udal zergetatik heldutako diru-sarrerak, herri-lurrak kanpo utzi ondoren geratu diren 19.229 hektareetatik heldu direnak, lursailen katastro-balioaren arabera kalkulatu dira. Balio hori 20,5 milioikoa izatetik 78,7 milioikoa izatera pasa da, ehuneko 327ko igoerarekin.

Herri-lurren esleipenaren ondorioz diru-bilketan izan den igoera urtean 1,6 milioi euro ingurukoa izan daiteke.

8) Egindako azterlanetatik, non ez baita jasotzen ureztatze tradizionalekiko alderaketa, ondorioztatzen da Ubideko ureztalurrek kostu nabarmen txikiagoa dutela, ehuneko 50 ingurukoa, ur bolumen handia erabiltzen dituzten ureztalurrek baino, eta hori nabarmenagoa da ponpatzearen altuera handia denean, energia-kostuek daukaten garrantzia dela eta.

9) Beste alderdi batzuetan sartu gabe, soilik ureztatzea ezartzeko prozesuari erreparatuta, ulertzen dugu lan eraginkorra egin dela, zeren eta lur-zatien ehuneko 87an ureztatze-sistema ezarri baita.

10) Informazio hori eta INTIAk eta Departamentuak egindako azterlanak positibotzat jotzen ditugu; izan ere, aukera emanen digute etorkizuneko analisisetarako datu historikoak edukitzeko.

## V.2. GOMENDIOAK

Ondorioz, hauxe gomendatzen dugu:

- *Azpiegitura hauen eraginei buruzko azterlanekin jarraitzea, zeren eta ezinbestekoa da urte batzuk igarotzen uztea balioespen zehatzagoak egin ahal izateko.*

*Horri dagokionez, aztertu beharra dago ez ote den komeni INTIAk egindako azterlanak osatzea aldizkako beste azterlan batzuekin, norainoko handiagokoak, entitate ikertzaile espezializatuaren laguntzarekin.*

- *Honelako azpiegituretarako –kostu handikoak eta iraupen luzekoak– aztertzea zein den finantzaketarako eta kostuaren zati bat erabiltzaileei jasanarazteko politika publiko egokiena, eta*

*ahaleginak egitea banaketa erabiltzaileen artean denboran ekitatiboa izan dadin (belaunaldien arteko ekitatea) eta ustiatzearen errentagarritasuna erraz dezan, batez ere lehenengo urteetan.*

- *Aztertzea Administrazioak nolako jarduketak egin ditzakeen, erabiltzaile guztiek, antzeko era batera, azpiegitura horien onurak hartu ahal ditzaten eta haien artean gertatzen diren desberatzeak gutxiago izan daitezen.*

## VI. AZTERTUTAKO ALDERDIEI BURUZKO IRUZKINAK

“Mugak” izeneko atalean adierazitakoa kontuan hartuta, atal honetan zabalduko ditugu aurrekoaren ondorio orokorrak, eta haiek zehaztu eta komentatuko ditugu.

Horretarako, atala hiru zatitan banatuko dugu: lehenengoan, azpiegituren kostu desberdinak komentatuko ditugu; bigarrenan, lortutako emaitzak eta onurak aipatuko ditugu; eta hirugarrenan, ureztatzeko sistema desberdinetako erabiltzaileen kostuak alderatuko ditugu.

### VI.1. AZPIEGITUREN KOSTUA DELA ETA

Itoizko urtegia eta Nafarroako ubidea eraikitzeke lanak Nafarroako Gobernuak eta Estatuak Administrazioak egin dituzte, elkar hartuta, kontuan hartuta Estatuak interes orokorreko obra hidraulikoen arloan daukan eskumena eta Nafarroak, bere lurraldean, aprobetxamenduen eta ureztaketaren arloan dauzkanak.

#### VI.1.1. Itoizko urtegia

1988ko urriaren 19an, Nafarroako Gobernuak eta Estatuak Administrazioak lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zuten, non honako hau ezartzen baita: Estatuak presaren obra zibila egin eta finantzatu du eta Nafarroako Gobernuak, berriz, lursailen desjabetzeak egin eta finantzatu ditu; halaber, ukitutako zerbitzuak berrezarriko ditu.

Ebroko Konfederazio Hidrografikoa da Itoizko urtegiaren ustiatzeaz arduratzen dena, eta bertatik hornitzen da Nafarroako ubidea. 2004an, Nafarroako Gobernuari urteko 340 hektometro kubikoko emakida eman zitzaion, Nafarroako ubidearen eremu ureztagarriko 53.000 hektarea ureztatzeko. Gero, 2007an, Nafarroako Gobernuak emakida hori Nafarroako Ubideko Ureztatzaileen Elkarte Orokorrari laga zion.

Urtegiaren egindako inbertsioa 298.144.401 eurokoa izan zen; horietatik, Estatuak 210.340.099 euroko obrak egin zituen eta Nafarroako Gobernuak, berriz, 87,8 milioiko guztizko gastua hartu zuen bere gain; hona azken horren xehakatzeara:

Kontzeptua	Kopurua
Azterlanak eta proiektuak	1.572.759
Desjabetzeak	29.921.099
Obrak	41.457.939
Zerbitzuen berrezarpena	12.316.278
Beste gastu batzuk	2.601.187
<b>Guztira</b>	<b>87.869.262</b>

87,8 milioi horietatik, kopuru aipagarrienak desjabetzeei eta Agoitz eta Oroz Betelu arteko errepedeko obrei dagozkie.

Gainera, Itoizko dike osagarriak, eraiki gabekoak, 26,5 milioi euroko kostua duela zenbatetsi da.

Adierazi nahi dugu Itoiz-Nafarroako Ubidea Fundazioak guztira 17 milioi euro egiten duten inbertsioak egin dituela eskualdean; horietatik, Ebroko Konfederazio Hidrografikoa 9,3 milioi jarri

ditu eta Fundazioak, berriz, gainerako 7,7ak, Nafarroako Gobernutik eskuratuta. Ganberak, 2015eko abuztuan, horri buruzko txosten bat argitaratu du. Horretara jotzea gomendatzen dugu.

Urei buruzko 29/1985 Legeari<sup>3</sup> eta Jabari Publiko Hidraulikoari buruzko Erregelamenduari (1986-04-30eko 103. EAO) jarraituz, Estatuak inbertsio horren zati bat berreskuratuko du Nafarroako Ubideko Ureztatzaileen Elkarte Orokorren bitartez erabiltzaileei jasanarazitako kanon baten bitartez. Kasu honetan, inbertsioaren ehuneko 70 jasanarazten da 50 urteko epean zehar, bai eta funtzionamendu- eta administrazio-gastuak ere. Tarifak NAOn argitaratzen dira. Onetsi zen lehena 2010ekoa da.

Kanona Itoizko ura erabiltzen duten guztiei aplikatzen zaie; haietatik, eremu ureztagarriak aprobetxamenduaren heren inguru egiten du. Urteen arabera banaketa, eremu ureztagarriko sektore desberdinetarako, honako taula honetan ikus daiteke:

Sektorea	(Euroak/hektarea)				
	2010	2011	2012	2013	2014
I+II.1	34,0965	34,0556	33,2509	32,7570	31,3798
II.2+III+LV.2IV.3		34,6475	33,8462	33,3531	31,9759
IV.1			34,4416	33,9491	32,5720
IV.2+III+IV 1-2-3-4-5,IX eta X				34,5452	33,1682
V,VII,VIII					33,7643

Hartara, esate baterako, 2013an, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak 18.904 hektareari zegokion fakturazioa aurkeztu zuen, aipatutako irizpideen arabera, eta 639.793 euro egin zuen.

Nafarroako Ureztatzaileen Elkarte Orokorrek kopuru hori erabiltzaile guztiei jasanarazi zien, ureztatzearen estaldura-maila (ekipatutako azalera) alde batera utzita. Horren erdia hektarea bakoitzeko kanon finko baten arabera ezarri zuen (14,27 euro/ha) eta beste erdia, berriz, urkontsumoaren arabera (0,0042483 euro/m<sup>3</sup>).

### VI.1.2. Nafarroako ubidea

1998ko urriaren 19an, Estatuako Administrazio Orokorrek, Ingurumen Ministerioaren bitartez, eta Nafarroako Foru Komunitateak Nafarroako ubidea egiteko lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten. Ubideak Itoizko urtegitik hartzen du ura, eta haren 177 km-ko ibilbideak ura eramane du, bi fasetan, 53.000 hektarea inguru ureztatzeko.

Hitzarmenaren arabera, obren exekuzioa eta zuzendaritza Estatuako Administrazio Orokorri dagokio, eta haien finantzaketaren ehuneko 60 Estatuak eta ehuneko 40 Foru Komunitateak ordainduko dute.

Hitzarmena 1999an, 2009an eta 2013an eguneratu da. Lehenengo kasuan, aurrekontuak gaurkotzen dira; bigarrenean, berriz, aldaketa batzuk sartzen dira honako alderdi hauetan: obren finantzaketa eta ustiaketa; haiek pixkanaka zerbitzuan jartzea eta zentral hidroelektrikoak sartzen joatea; eta hirugarrenean, 1. fasearen zabalpena jasotzen da, 15.000 hektarea inguru ureztatzeko, bai eta bigarren fasearen aldaketa ere, aurreikusitako azalera gutxituta.

Ubidea eraiki eta ustiatzeko, "Canal de Navarra, S.A." (Canasa) sozietate estatala sortu zen 2000ko urtarrilean, 320,5 milioiko kapitalarekin. Haren akziodunak dira Estatuak, ehuneko 60ekin, eta Nafarroa, ehuneko 40ekin –128,2 milioi euro–. Entitate horren kapitalaren bitartez ubideko inbertsioaren ehuneko 50 finantzatzen da; gainerakoa maileguak itunduz finantzatuko da, 30 urtera arteko epearekin. Mailegu horiek amortizatuko dira uren erabiltzaileei tarifa batzuk ezarri eta Canasak zentral hidroelektrikoak ustiatuz.

<sup>3</sup> Gaur egun, 2001eko Urei buruzko Legeari testu batekina dago indarrean.

Honako hau da Nafarroako ubideko lehen fasean egindako inbertsioa:

	Euroak, milioitan
Ubideko obrak	459,6
Presa oineko zentral hidroelektrikoa	13,6
Ubideko zentral hidroelektrikoa	13,5
<b>Guztira</b>	<b>486,7</b>

Aurreikusitako inbertsiorako egin den zenbatespena –lehen fasea eta zentral hidroelektrikoak, lehen fasearen zabalpena eta bigarren fasea hartuz– 700 milioi eurotik gorakoa da. Zenbatespen horren arabera, Foru Komunitateari 144,7 milioiko guztizko kapitala jartzea legokioke. Logikoa denez, zenbateko horiek izanen dira inbertsioak egiten diren garaiko egiazko kostuen arabera-koak.

Hitzarmenaren azken aldaketan (2013), Nafarroak konpromisoa hartu zuen Canasari 77 milioi aurreratzeko 2013tik 2026ra, ehuneko hiruko urteko interesa sortuz; sozietateak kopuru hori 2027tik 2040ra bitartean itzuli beharko du. Itzulketaren egutegia estimazio bat da, eta erabilitzaileei kobratutako tarifen bidez jasotako diru-sarrerak nahikoak izatearen mende egonen da.

Tarifak urtero onesten ditu Canasako Administrazio Kontseiluak, honako hauek kontuan hartuta: kudeaketa- eta ustiatze-gastuak, finantza-gastuak eta hartutako maileguak amortizatzeko behar diren baliabideak. Halaber, kontuan hartuko dira ustiaketa hidroelektrikoak zenbateko eragin ekonomikoak dauzkan.

Tarifek termino finko bat (lotunerako eskubidea) eta termino aldakor bat (kontsumo kuota) izanen dute.

Aurreikusitako inbertsioen arabera, eskema finantzario bat ezarri zen, eta hartatik ureztatzetarifa bat atera zen, 0,027 euro/m<sup>3</sup>-koa (finkoa gehi aldakorra hartuta). Tarifa hori abiapuntutzat hartuta, tarifaren bi osagai finkatu ziren, eta KPlaren arabera gaurkotzen joan dira (2014ko irailan, tarifa aldatu zen, 1. fasearen zabalpenaren ondorioz).

Horren ondoriozko tarifak honako taula honetan ikus daitezke:

Urtea*	€/ha	€/m <sup>3</sup>	BEZa
2001	59,5	0,01774	7
2005	66,1045	0,01971	7
2006	68,55	0,02045	7
2007	70,4	0,021	7
2008	73,36	0,021882	7
2009	74,39	0,02219	7
2010	74,99	0,0224	8
2011	77,24	0,023	8
2012	79,09	0,0236	10
2013	81,38	0,0243	10
2014	81,63	0,0245	10

\*Fakturazioaldiak urritik irailera izanen dira.

Erabilitako finantza-eskemak bi faseetan aurreikusitako guztizko inbertsioa jasotzen du; horrenbestez, datu teorikoei dagokie, eta ez daude doituta obrak egiteko eta lur-zatiak ureztaluz bihurtzeko erritmoaren arabera.

### VI.1.3. Nafarroako ubidearen eremu ureztagarria

Eremu ureztagarria Nafarroako ubidetik hasi eta ureztatze-unitateak hornitzen dituzten ur-harguneetaraino iristen da, eta eskatzen du lurralde horietan lur-zatien berrantolamendua egitea, bideak konpondu edo bide berriak diseinatzea, instalazio hidrikoak eta hustubideak egitea eta abar; hori guztia, Nekazaritza-azpiegiturei buruzko martxoaren 7ko 1/2002 Legean ezarritakoari jarraituz.

Nafarroako ubideak ureztatuko duen eremuko interes orokorreko azpiegituren eraikuntzari eta ustiapenari buruzko azaroaren 22ko 12/2005 Foru Legeak azpiegitura horiek egin eta ustiatzeari buruzko araubide juridikoa arautzen du.

Eraikuntzaren erantzukizuna "Riegos de Navarra"-enpresa publikoaren esku geratzen da – gaur egun, INTIA, S.A. da–. Lehiaketa egin ondoren, 1. fasearen eraikuntza eta ustiatzea "Agua-canal" sozietateari esleitu zitzaion, 30 urterako. Urte horietan, INTIAk bi osagai dituen kanon bat ordainduko du: hektarea bakoitzeko atal finko bat eta kontsumoaren arabera atal aldakor bat.

22.500 hektarea ureztatzeko bidea ematen duen lehen fase hori sektoreka (tarteak eginez) gauzatu zen, eta haitan ureztaketa jarri zen eraikuntza amaitzen zihoan neurrian. 2011n amaitutzat eman zen.

Emakida-sistema dela eta, inbertsioa enpresa emakidadunarena da emakida-epea amaitzen den arte. Emakidadunarentzako ordainketa lehen aipatutako urteko kanonaren bidez egin zen, eta obren eta instalazioen amaierako prezio aitortua (O.I.A.P.A) 169,9 milioi eurokoa da.

Emakida egin aurretik, Administrazioak I. sektoreko eta X. sektoreko zati bateko lanak hasiak zituen. Haien zenbatekoak ez zeuden emakidaren barruan, baina bai haien mantentze-lanak. Guztira, 11.575.925 euro egiten dute.

Emakidan ez da sartzan, ezta ere, lur-zati berrantolamenduaren kostua, zeina 3.379.351 eurokoa izan baitzen; izan ere, Nekazaritza-azpiegiturei buruzko 1/2002 Foru Legeko 72. artikulua-aren arabera, "lur-zati berrantolamendua egiteak sortzen dituen gastuak eta bai interes orokorreko obrek sortzen dutena ere..., Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kontu egonen dira".

Urezta daitezkeen eremuetan egindako inbertsioaren ehuneko 15 jabeek aurreratu zuten, nahiz eta 1/2002 Foru Legeko 72. artikulua kontuan hartuta, egiazko ekarpena ehuneko 10 ingurukoa izan.

Hurrengo taula honetan eragiketa horren guztiaren laburpen bat emanen dugu. Hura zuzen interpretatzeko, honako hauek hartu behar dira kontuan:

- Administrazioak 2012an egindako azken zenbatespenak jasotzen ditugu, landutako hektarea bakoitzeko 4.383 m<sup>3</sup>-ko batez besteko kontsumoa biltzen duen kanonaren gainean, ehuneko 2,5eko batez besteko KPIarekin.
- Kanonaren kostuak, halaber, finantzaketaren kostua jasotzen du, bai eta azpiegituraren mantentze-lanak ere.
- Horrenbestez, ezin dira soilik konparatu inbertsioaren balioa eta kanonaren zenbateko teorikoa. Hartara, 2015-2036 urteetarako kalkulaturako zenbatekoa, ehuneko 2,5eko KPIarekin, 428 milioikoa da; baina ehuneko 1,5aren arabera kalkulatz gero, 352 milioikoa izanen da.

Bestalde, kontuan hartu beharra dago 160 milioiko mailegu baten amortizazioak, ehuneko 5eko tasarekin eta 30 urterako, berarekin dakarrela 152 milioi ordaintzea, eta guztizko ordainketa 312 milioikoa izatea.

- Obra horien zati bat FEOGaren finantzaketa lortu duten hainbat planetan sartu dira.

(euroak, milioitan)

Inbertsioa	Finantzaketa				Diru-sarrerak FEOGA
	Erabiltzaileak	Zuzeneko ordainketak	Gobernua		
				Kanona	
			2014 bitarte	Aurreikuspena*	
P.F.R.O.I	169,8	13,3	62,9	428	
I. sektorea	9,3	0,6	8,7		3,6
X sektorea	2,2	0,4	1,8		0,1
Lur-zatien berrantolamendua	3,3		3,3		0,5

\*Zenbateko hori kalkulatu da jada iruzkindu ditugun kontsumoei eta KPlari buruzko aurreikuspenekin, eta horren barruan sartzen dira azpiegituraren finantzaketa eta mantentzea, emakida-aldia amaitu artekoak.

#### VI.1.4. Lur-zatietan ureztaketa jartzea

Obra horiek, Nekazaritza-azpiegiturei buruzko 1/2002 Foru Legearen arabera, "interes pribatukotzat" jotzen dira, eta lur-zatietako jabeek egiten dituzte; halere, ikuspuntu ekonomikotik, beharrezkoak dira prozesu osoaren bideragarritasunerako, zeren eta lur-zatietan gertatzen baita ur-kontsumoa. Hala eta guztiz ere, Administrazioak haiek direla-eta gastu bat egiten du nekazaritza-ustategiak modernizatzeko Landa Garapeneko Departamentuak ematen dituen diru-laguntzen bitartez.

Ureztaketa lur-zatietan jartzeko erritmoa zenbait faktorek erraztu dute:

- Banaketa-sarearen ehuneko 15eko aldeaz aurretiko ordainketa egitea.
- Tarifek hektarea bakoitzeko osagai finko bat dute; hori dela eta, ureztatu ez arren, tarifaren zati bat ordaindu beharra dago.
- INTIAk partikularrei eskaini dizkie bere zerbitzuak, proiektuak egiteko, lizitazioarako eta obren zuzendaritzarako.
- Diru-laguntza batzuk ere badaude, nahiz eta nabarmendu behar den azken urteetan ordainketak atzeratu egin direla, krisiaren ondorioz eta aurrekontuan diru gutxiago egotearen ondorioz.

Horrekin guztiarekin, azpiegiturako obrak pixkanaka amaitzen joan dira, eta 2011n amaitu zirela jo daiteke. 2014an, zabalera osoaren ehuneko 87an jarri da ekipamendua.

Ureztaketarako azpiegiturak egiten hasi zirenetik, ureztaketarako laguntzak emateari buruzko araudia aldatu egin da. Hartara, Nekazaritza-azpiegiturei buruzko Foru Legea garatzen duen erregelamenduak kasuko foru agindua onestea eskatzen du. 97/2005 Foru Agindua onetsi zen, hobekuntza-planari buruzko 2009ko araudiak indargabetua. Haren azken onespena 1/2013 Foru Aginduaren bidez gauzatu zen.

Funtsean, laguntzak 2005eko Foru Aginduaren arabera eman dira, eta hobekuntza-planen arabera 2009tik. Hala eta guztiz ere, aipatu beharra dago 2005eko araudiarekin egindako emakida batzuk 2009 baino geroago ordaindu zirela, eta 2011ko eta 2013ko emakidak ziurtagiriak aurkezteko eta guztiz ordaintzeko zain daudela.

Landa Garapeneko Departamentuak, espedienteen kudeatzaileek berrikuspena egin ondoren eta, kasua bada, haien banakako berrikuspena egin ondoren, datu batzuk eman dizkigu. Honela laburbil ditzakegu:

	2009a baino lehenagokoak	2009-2013 aldia	Guztira
Zenbat espediente	282	646	928
Hektareak	5.634	7.949	13.583
Hektareak/espedienteak	19,98	12,30	14,64
Emandako kopurua*	11.600.132	12.384.399	23.948.530
Laguntzekoa den inbertsioa	z.g.	28.696.512	-

\*Zenbatekoak ematen dira zeren eta justifikatu beharreko inbertsio batzuk bai baitaude, eta ordainketak 2017ra arte luzatuko baitira.

Datu horien arabera, hektarea bakoitzeko inbertsioa 3.610 eurokoa da 2009-2013 aldian, eta emandako diru-laguntza, berriz, 1.553 eurokoa; azken horrek, beraz, inbertsioaren ehuneko 43 egiten du.

#### VI.1.5. Ureztaketak erabiltzaileentzat duen kostua.

Aurreko ataletan ikusi dugun bezala, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak funtzionamendu-gastuak eta Itoitzen egindako inbertsioaren portzentaje bat erabiltzaileei ordainarazten die, eta Canasak, berriz, bere finantzaketaren zati bat.

Erabiltzaileek, halaber, Aguacanal ordaintzen dizkiote Nafarroako ubideko eremu ureztagarriaren ustiaketa-gastuak, zeinak hektarea bakoitzeko kopuru finko baten arabera ezartzen baitira.

Ordainketa horiek Ureztatzaileen Elkartearen bitartez egiten dira. Azken horrek ere bere gastuak bazkideei ordainarazten dizkie.

Hartara, erabiltzaileak Ureztatzaileen Elkarteari guztizko kopuru bat ordaintzen die, eta kopuru hori gero hartzaile desberdinen artean banatzen da.

Kopuruak urtetik urtera aldatzen doaz banatu beharreko gastuen eta kontsumoen arabera.

Gastuek zati finko bat eta zati aldakor bat dutenez, ur kontsumoaren arabera, erabiltzaileak ordaintzen dituen kopuruak aldakorrak dira, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala. 2013an ur-kontsumo desberdinak izan dituen hektarea bati buruzko datuak dira:

Kontsumitutako uraren hektarea bakoitzeko kostua eta banaketa

	Kontsumoa (m <sup>3</sup> )											
	0	%	1.000	%	2.000	%	3.000	%	4.500	%	6000	%
Ebroko Konfederazio Hidrografikoa:Finkoa	14,27	10	14,27	10	14,27	11	14,27	11	14,27	12	14,27	12
Aldakorra	-		4,25		8,50		12,74		19,11		25,49	
Canasa: Finkoa	81,38	57	81,38	61	81,38	63	81,38	66	81,38	68	81,38	69
Aldakorra	-		24,30		48,60		72,90		109,35		145,80	
Aguacanal	22,12	16	22,12	13	22,12	11	22,12	9	22,12	8	22,12	7
Ureztatzaileak	12,00	8	12,00	7	12,00	6	12,00	5	12,00	4	12,00	4
BEZa	12,78	9	15,21	9	17,64	9	20,07	9	23,72	8	27,36	8
<b>Guztira</b>	<b>142,56</b>	<b>100</b>	<b>173,53</b>	<b>100</b>	<b>204,51</b>	<b>100</b>	<b>235,49</b>	<b>100</b>	<b>281,96</b>	<b>100</b>	<b>328,43</b>	<b>100</b>
Kostua/m <sup>3</sup>			0,1735		0,1022		0,0785		0,0626		0,0547	

Taulako datuetatik ondorioztatzen denez, lurra ureztatu ez dituen erabiltzaile batek 2013an 142,56 euro ordaindu ditu hektarea bakoitzeko; 6.000 m<sup>3</sup> ur erabili zituen batek, berriz, 328,43 euro.

4.500 m<sup>3</sup>-ko kontsumo batean, zenbatekoaren bi heren baino gehiago Canasari ordaintzeko dira.

m<sup>3</sup> ur bakoitzeko guztizko kostua kontuan hartuta, kostu hori kontsumoaren altzerantzizkoa da, eta 0,173 euro/m<sup>3</sup>-koa da 1000 m<sup>3</sup>-ko kontsumo baterako, eta 0,054 euro/m<sup>3</sup>-koa, berriz, kontsumoa 6.000 m<sup>3</sup>-koa bada.

## VI.2. EMAITZAK

Emaitzei buruzko iruzkinak egin baino lehen, “mugak” atalean aipatutakoa azpimarratu eta gogorarazi beharra dago iraupen luzeko azpiegitura bat dela, eta hartatik lehenengo fasea baino ez dela egin, eta hura pixkanaka jarri dela zerbitzuan, sektore desberdinetako lanak amaitzen joan diren neurrian.

Bestalde, ez dira emaitza guztiak ukitutako herrietan gertatzen, ez eta bakarrik nekazaritza-sektorean ere; hori dela eta, haien gaineko azterketak fiskalizazio-txosten baten irismenetik ateratzen diren metodoak eta denborak eskatzen ditu.

Hori guztia dela eta, atal honetan zenbait datu eta azterketa aurkeztuko ditugu, zeinek aukera emanen baitigute azpiegitura zerbitzuan jarri zenetik gertatzen ari diren emaitzen balorazio parzialak egiteko.

Lehenengo datu batzuk aurkeztuko ditugu lur-zatien egoerari buruz, ur-kontsumoei buruz, laboreen bilakaerari buruz; gero, lortutako onurak, lanaren bilakaera eta sortutako diru-sarrerara publikoak aztertuko ditugu.

### VI.2.1. Lur-zatien bilakaera

Lehenengo, zehaztu eta finkatu beharra dago zein den azalera ureztagarriaren deskribapenean erabiltzen den terminologia, zeren eta egoeraren arabera kontsiderazio desberdinak baititu. Hartara, honako hauen artean bereizi beharra dago:

- Ureztalurren azalera: eremu ureztagarriak osatzen dituzten lur-zatietako bakoitzaren hektareen batura. 22.444 ha-koa da.
- Azalera erabilgarria: lan daitekeen azalera erabilgarria da. Urtero ureztalurren azalerari eraikinei –etxolak, biltegiak eta abar– dagozkien hektareak kentzearen emaitza da. 22.334 ha-koa da.
- Laboretarako azalera: azalera erabilgarriari lugorri dauden eta abandonatuta dauden hektareak kentzearen emaitza da. 21.035 ha-koa da, eta lugorri egoteagatik kendu direnek 1.299 ha egiten dute.
- Landutako azalera: urtero eremu ureztagarrietan labore guztiak batera hartuta landu diren hektareen batura da. 22.933 ha-koa da. Laboretarako azalera baino handiagoa da, zeren eta hektarea batzuetan urte bakarrean labore bat baino gehiago lan baitaiteke.
- Uzta bakoitzeko azalera: landutako azaleraren eta laboretarako azaleraren arteko aldea da. 2013an, 1.898 ha egiten dute: laboretarako azaleraren ehuneko 9 eta azalera erabilgarriaren ehuneko 8,5.

Logikoa denez, datuak aztertzen direnean kontuan hartu behar dira ukitutako azalera dela-eta dauden kontzeptu desberdin horiek.



Ondoren azalduko dugu zein izan den jabeen eta lur-zatien kopuruaren bilakaera, ureztalurrak egin aurretik eta horren ondoren. Kontuan hartu beharra dago denboran zehar datuak aldatzen doazela jardueraren eta erabilitako irizpideetan egindako doikuntzen ondorioz.

Sektorea	Azalera (ha)	Eraldaketa baino lehen		Eraldaketa ondoren		
		Titular kopurua	Lur-zati kopurua	Titular kopurua	Lur-zati kopurua	
I.	Izarbeibar	1.150	378	1.199	397	421
II.1	Izarbeibar	1.058	291	652	334	338
II.2	Artaxoa eta beste batzuk	3.153	916	2.035	855	933
III	Artaxoa	1.165	298	846	235	354
IV.1	Berbintzana eta beste batzuk	2.388	536	2.667	261	589
IV.2	Faltzes eta beste batzuk	903	77	428	78	78
IV.3	Faltzes, Erriberri	1.439	235	554	133	197
IV.4	Erriberri	2.627	402	964	430	539
IV-5	Azkoien eta beste batzuk	1.958	370	1.786	184	305
V	Erriberri, Tafalla	908	480	1.364	392	372
VI	San Martin Unx	821	376	1.845	338	534
VII	Beire	1.537	205	799	140	262
VIII	Uxue	246	80	646	52	69
IX	Pitillas eta beste batzuk	1.988	380	2.948	315	401
X	Murillo, Santakara	1.103	59	301	67	228
		22.444	5.083	19.034	4.211	5.620

Hartara, 5.083 jabe izatetik 4.211 jabe izatera iragan da, ehuneko 17ko gutxitzearekin, eta 19.034 lur-zatitatik 5.620 lur-zatitara, ehuneko 70eko gutxitzearekin. Batez besteko lur-zatiaren zabalera 1,18 hektareakoa izatetik 3,99 hektareakoa izatera pasa da.

Nekazaritza-azpiegiturei buruzko 1/2002 Legeko 48. artikulua ustaketarako oinarritzko azalera gisa ezarri zuen, ureztalurretan, gutxienez bost hektareako azalera duena. Dauden ureztaketak-unitateak 2.661 dira; hori dela eta, batez besteko azalera 8,4 hektareakoa da ureztaketako erabilpen-unitate bakoitzeko.

### VI.2.2. Ur kontsumoa

Uraren kontsumoa handitzen joan da lursailak ureztalurrei bihurtzeko prozesua hazten joan den neurrian. 2011n obra amaituzat jo daiteke. Hala eta guztiz ere, jakin beharra dago lur-zatietan ureztaketak jartzea geroko kontua dela, eta oraindik ere ez dela hektarea guztietan instalatu.

Hurrengo taulan azaleraren eta ur-kontsumoaren bilakaera ikus daiteke.

Urtea	Azalera (ha)	Landatutako azalera (ha)	Kontsumoa *ura m <sup>3</sup>	m <sup>3</sup> /ha
2007	1.164	457	1.474.840	3.227
2008	6.494	1.800	4.681.333	2.601
2009	13.332	5.272	18.406.627	3.491
2010	16.622	9.023	32.840.294	3.640
2011	22.353	12.575	62.477.661	4.968
2012	22.370	16.653	91.735.636	5.509
2013	22.412	17.081	76.004.672	4.450
2014	22.444	19.462	90.267.525	4.638

\*Datuak urteko kontsumoei buruzkoak dira.

Kontsumoaren bilakaera aztertzeko, datuak ondoren aurkeztuko ditugu, sektoreka eta kanpainen arabera –ez urte naturalen arabera, kanpainek urriaren 1etik irailaren 31ra artekoak baitira–.

## Ur-harguneen 2012ko, 2013ko eta 2014ko kontsumoei buruzko taula (sektoreka)

Sektorea		m <sup>3</sup> bakoitzeko kontsumoa 2011ko urritik 2012ko irailera bitarteko kanpainan	m <sup>3</sup> bakoitzeko kontsumoa 2012ko urritik 2013ko irailera bitarteko kanpainan	m <sup>3</sup> bakoitzeko kontsumoa 2013ko urritik 2014ko irailera bitarteko kanpainan	Azalera (ha)	Ur-harguneen kopurua
I.	Izarbeibar	3.313.780	2.658.218	3.554.319	1.150	216
II.1	Izarbeibar	3.355.166	2.472.703	2.507.763	1.054	189
II.2	Artaxoa eta beste batzuk	15.548.717	11.903.208	13.694.929	3.148	539
III	Artaxoa	5.794.890	4.912.508	5.663.883	1.160	210
IV.1	Berbintzana eta beste batzuk	9.968.938	8.386.621	10.554.210	2.385	422
IV.2	Faltzes eta beste batzuk	5.056.794	3.614.760	4.364.762	903	123
IV.3	Faltzes, Erriberri	6.104.521	4.030.127	5.744.333	1.429	217
IV.4	Erriberri	7.588.969	5.878.264	7.621.599	2.627	378
IV-5	Azkolen eta beste batzuk	12.652.026	10.261.674	11.369.729	1.958	270
V	Erriberri, Tafalla	2.703.142	2.270.157	2.670.417	908	143
VI	San Martin Unx	743.817	424.854	968.840	822	160
VII	Beire	3.810.290	4.484.953	6.452.513	1.533	222
VIII	Uxue	621.902	768.678	880.371	245	47
IX	Pitillas eta beste batzuk	9.180.487	8.285.346	9.104.560	1.987	297
X	Murillo, Santakara	6.794.174	4.705.383	5.093.405	1.103	192
<b>Guztira</b>		<b>93.237.613</b>	<b>75.057.454</b>	<b>90.245.633</b>	<b>22.412</b>	<b>3.625</b>

Honako hauek dira kontsumorik izan ez duten ur-harguneen –ekipatu gabeko azalerei dagozkie– eta instalaziorik ez duten ur-harguneen kopurua, aipatzen diren kanpainetan:

Kanpaina	11-12	12-13	13-14
Kontsumorik gabeko ur-harguneak	764	609	503
Ekipatu gabeko hektareak	4.719	3.387	2.993

Azkeneko kanpainan, ur-harguneen ehuneko 14k ez zuen kontsumorik izan, eta lurraldeko ehuneko 13k ez zeukan ureztatze-instalazioen estaldurarik.

12-13 kanpainan zehar ur-hargune bakoitzak izandako datuak aztertu ditugu, horiexek baitira lan hau egiten hasi ginenean eskuragarri zeuden azkenak; honako hauek dira emaitzak:

Kontzeptua	Kopurua
Guztizko kontsumoa	75.057.454 m <sup>3</sup>
Ur-harguneen kopurua	3.625
Kontsumorik gabeko ur-harguneak	609
Kontsumorik handiena izan duen ur-hargunea	151.060 m <sup>3</sup>

Kontsumoaren ehuneko 10 (7.509.307 m<sup>3</sup>) 101 ur-hargunek egin dute –ur-harguneen ehuneko 2,8 egiten dute–, 74.478 m<sup>3</sup>-ko batez bestekoarekin.

Beste 375 ur-hargunek, 1 eta 1.312 m<sup>3</sup> bitarteko kontsumoekin, 162.259 m<sup>3</sup>-ko kontsumoa egin dute, 433 m<sup>3</sup>-ko batez bestekoarekin.

Kontsumoa duten ur-harguneen batez bestekoa 23.896 m<sup>3</sup>-koa da.

1.534 dira batez bestekoa baino kontsumo handiagoa duten ur-harguneak.

1.747 ur-hargune badaude kontsumorik handiena duen ur-harguneak duena baino kontsumo ehuneko 10 txikiagoa dutenak.

Datu horiek ongi adierazten dute zenbateko aniztasuna dagoen ur-kontsumoetan ur-hargune desberdinetan, eta kontsumoa zenbat handitu litekeen; betiere, laboreen arabera, logikoa den bezala.

### VI.2.3. Laboreen bilakaera

Nafarroako ubidearen 1. fasean sartzen diren lursailak "lehorreko lurra" kategorian sartzen ziren, eta, nagusiki, zerealaren eta mahatsaren produkzioan erabiltzen ziren.

Egindako gaurkotzeak aukera eman du lehorreko lurra ureztaluz bihurtzeko, eta bihurteta horrekin landa daitezkeen produktuen kopurua handitzeko.

Produkzioetan gerta litezkeen aldaketa horiek zenbait alderdik mugatzen dituzte hasieran: nekazarien ezagutzak; produktu berriak jartzeko behar diren inbertsioak; landaketa batek errentagarria izateko urte batzuk eskatzen dituen kasuetan, landarearen bizitza luzea delako (mahatsa, oliboa...), produkzioa aldatzeko zailtasuna; eta, logikoa denez, produkzioen prezioak eta irabazitarteak direla-eta espero daitezkeenak.

2003. eta 2004. urteetan, honakoak ziren labore nagusiak:

	2003		2004	
	ha.	Ehunekoa, guztizkoaren gainean	ha.	Ehunekoa, guztizkoaren gainean
Garagarra	12.663	60,5	12.431	59,5
Lugorriak	2.769	13,2	3.386	16,2
Mahastia	2.154	10,3	1.919	9,2
Garia	1.878	9,0	1.528	7,3
Honaino, guztira	19.464	93,0	19.264	92,2

Datu horietatik ondorioztatzen denez, eta lugorriak kontuan hartuta, garagarriak, gariak eta mahastiak eremuko lursailen ehuneko 90 baino gehiago egiten zuten.

2013. urtean, produkzioa nabarmen aldatu da. Guztira 48 labore<sup>4</sup> desberdin daude, baina zabalera oso desberdinekin.

Laboreen hektarea kopurua	Labore kopurua	ha kopurua, guztira	Ehunekoa	ha/laborea batez bestekoa
<10	12	60,7	0,25	5,1
10-50	11	326,8	1,35	29,7
50-100	6	419,8	1,73	70,0
100-500	12	2.699,0	11,14	225
500-1.000	7	4.068,5	16,79	581,2
Lugorriak	1	1.298,0	5,36	1.298
1.500-3.000	3	6.950,0	28,68	2.316,7
>3000	1	8.406,3	34,70	8.406,3
	53	24.229,1 <sup>5</sup>	100	

Hauexek dira labore nagusiak:

Laborea	Azalera	Ehunekoa	Ehuneko metatua
Artoa	8.406	34,7	34,7
Garagarra	2.943	12,1	46,8

<sup>4</sup> Zerrendan 53 agertzen dira, zeren eta, azaleraren eraginetarako, lugorri, mintegi, negutegi, baratze eta zuhaitzak ere hartzen baitira.

<sup>5</sup> Kasu honetan, hektarea gehiago daude, zeren eta uzta bikoitzetara bideratutako lurra kontuan hartzen baitira.

Mahastia	2.502	10,3	57,2
Garia	1.505	6,2	63,4
Lugorriak	1.298	5,4	68,7
Barazkiak (19 labore)	3.298	14,8	83,5

Aurreko bi tauletako datuetatik, honakoa ondorioztatzen da:

- Nabarmena da sartu diren labore berrien kopurua, guztira 48 baitira.
- Produktuen ia erdia, 23,50 hektarea baino gutxiagoko zabaleran lantzen dira guztira, eta guztizko zabaleraren ehuneko 1,6 egiten dute.
- Arto alea da eremuan gehien landu den produktua, 8.406 hektarearekin, hain zuzen ehuneko 34,7a. Lursailak ureztalur bihurtu aurretik existitu ere ez zen egiten.
- Garagarra, garia eta mahastia dira, zabalerari begira, hurrengo laboreak, eta gaur egun luraren ehuneko 28,7 egiten dute; lehen, berriz, ehuneko 75 eta 80 bitarte ziren.

Ondoren, labore nagusien eta lugorriaren banaketa aurkeztuko dugu, eremu bakoitzeko ehunekoaren arabera, bai eta barazkien multzoa ere.

Sektorea	Arto aleak	Zenbait laboreren ehunekoak*					Barazkiak**
		Garagarra	Mahastia	Garia	Lugorriak		
I Izarbeibar	28,1	5,4	5,0	18,3	2,7	23,4	
II.1 Izarbeibar	20,0	7,5	21,5	10,8	3,0	6,8	
II.2 Artaxoa eta beste batzuk	46,9	11,9	4,8	5,4	3,2	8	
III Artaxoa	47,1	11,7	3,7	5,7	2,1	4,2	
IV.1 Berbintzana eta beste batzuk	44,7	9,9	8,7	7,6	6,5	18	
IV.2 Faltzes eta beste batzuk	67,3	1,6	3,1	8,8	1,9	6	
IV.3 Faltzes, Erriberri	29,1	23,4	3,9	7,0	2,4	32,6	
IV.4 Erriberri	27,9	24,1	25,1	2,1	7,0	3,8	
IV.5.1 Azkoien	47,8	2,9	7,1	8,2	8,6	39,8	
IV.5.2 Caparroso eta beste batzuk	50,8	1,0	7,9	8,3	0,4	29,4	
V Erriberri, Tafalla	26,0	22,9	17,0	3,7	11,4	12	
VI San Martin Unx	3,3	19,5	36,4	8,4	25,3	0,3	
VII Beire	32,6	17,4	4,3	7,6	13,1	12,2	
VIII Uxue	0,0	6,6	14,2	20,4	9,2	0	
IX Pitillas eta beste batzuk	42,5	7,2	16,9	2,1	5,0	20,3	
X Murillo, Santakara	40,8	22,2	2,9	4,8	0,1	22,3	
<b>Guztira</b>	<b>37,5</b>	<b>13,1</b>	<b>11,2</b>	<b>6,7</b>	<b>5,8</b>	<b>14,8</b>	

\*Ehunekoak hektareen gainean kalkulatu dira, uzta bikoitzak dauzkatenak kontuan hartu gabe.

\*\*Barazkietan, 19 labore desberdin daude, arto gozoa barne.

Taulatik ondorioztatzen den bezala, nabarmen aldakorrak dira sektore desberdinetan labore bakoitzerako erabiltzen diren lursailen ehunekoak. Hartara, esate baterako:

- Arto aleak ehuneko 37,5 egiten du, baina ehuneko 67,3 eta ehuneko 0 bitarte egiten du tokiaren arabera.
- Mahastia, ehuneko 11,2rekin, ehuneko 36,4 eta ehuneko 2,9 bitarte egiten du tokiaren arabera.
- Normalki, arto portzentaje handienak mahasti portzentaje txikienak dauden tokietan gertatzen dira.

- Adierazgarria da V., VI. eta VII. sektoreetan lugorriak ehuneko 11,4, ehuneko 25,3 eta ehuneko 13,1 egitea hurrenez hurren, sektore guztien batez bestekoa ehuneko 5,8koa baita.
- Barazkiak, oro har, 701 ha-tan landatzetik –lurren ehuneko 3,1– 3.298 ha-tan landatzera –lurren ehuneko 14,8– pasa dira. Sektoreen araberrako banaketan aniztasun handia dago, zeren eta sektore bateko lurren ehuneko 0 eta 40 bitarte egiten baitu.

#### VI.2.4. Lortutako emaitzak

Atal honetan, zenbait datu eta informazio aurkezten ditugu, oro har INTIAk egindako azterlan batzuetatik abiatuta. Horiek balioa izateko, kontuan hartu behar dira III. atalean aipatutako mugak. Horietatik guztietatik, azpimarratu nahi dugu kanpaina desberdinetan landatutako produktuen prezioetan izandako aldea; izan ere, alderdi horrek, logikoa den bezala, eragina baitu emaitzei buruz egin daitekeen edozein proiektiotan, edo aztertutako ekitaldiaren arabera emaitzak alda ditzake.

Lehenbizi, nekazaritza-produkzioari buruzko datu batzuk aurkezten dira; ondoren, lortutako etekinari buruzko beste datu batzuk; amaieran, berriz, enpleguaren eta udalen diru-sarreraren gaineko eragina aztertzen da. Azterlanak 2013ko datuak biltzen ditu.

##### VI.2.4.1. Nekazaritza-produkzioaren balioa

Erabilitako metodologia datza, funtsean, 2013ko produkzioak –ureztalurrekin lortutakoak– konparatzean eraldaketaren aurretik zeuden laboreekin lortuko ziren produkzioekin.

Horretarako, logikoa den bezala, departamentuan dauden estatistika desberdinetatik lortutako etekinak eta batez besteko prezioak erabili behar dira.

Hurrengo taulan sektoreka aurkezten ditugu egungo produktibitate gordinerako kalkulaturako balioak eta eraldaketaren aurretiko laboreekin lortuko zen produktibiterako kalkulaturakoak.

Sektorea	Hektareak	Ureztalurretako balioa (€)	Lehorreko lurretako balioa (€)	Ureztalurrak-lehorreko lurrak (€)	Aldearen ehunekoa
I Izarbeibar	1.133	2.573.927	993.604	1.580.323	159
II.1 Izarbeibar	1.051	2.441.963	1.046.609	1.395.354	133
II.2 Artaxoa eta beste batzuk	3.059	14.831.252	2.034.361	12.796.891	629
III Artaxoa	1.151	2.578.447	771.169	1.807.278	234
IV.1 Berbintzana eta beste batzuk	2.323	9.670.646	1.746.840	7.923.806	454
IV.2 Faltzes eta beste batzuk	897	1.707.085	586.701	1.120.384	191
IV.3 Faltzes, Erriberri	1.421	4.069.093	932.168	3.136.925	337
IV.4 Erriberri	2.567	4.969.449	2.336.116	2.633.333	113
IV.5.1 Azkoien	868	3.202.443	710.173	2.492.270	351
IV.5.2 Caparroso eta beste batzuk	1.053	5.199.961	564.666	4.635.294	821
V Erriberri, Tafalla	883	1.979.827	1.044.243	935.584	90
VI San Martin Unx	815	1.297.951	1.149.123	148.828	13
VII Beire	1.527	3.913.571	1.282.935	2.630.636	205
VIII Uxue	245	635.178	196.181	438.997	224
IX Pitillas eta beste batzuk	1.966	5.541.898	1.714.183	3.827.714	223
X Murillo, Santakara	1.102	3.545.464	712.811	2.832.654	397
<b>Guztira</b>	<b>22.061</b>	<b>68.158.156</b>	<b>17.821.884</b>	<b>50.336.272</b>	<b>282</b>

Ikus daitekeen bezala, produkzioaren balioa 17,8 milioitik 68,1 milioira pasatzen da, ehuneko 282koigoerarekin.

Hektarea bakoitzeko balioa 808 eurotik 3.089 eurora pasatzen da.

Batez besteko produkzioak askotarikoak dira sektore desberdinetan, hurrengo taulatik ondorioztatzen den bezala.

Batez besteko produkzioak, sektoreen arabera, eraldaketaren aurretik eta eraldaketaren ondoren (eraldaketaren ondorengo balioaren arabera ordenatua).

Sektorea	Ureztalurrak (€/ha)	Aldearen portzentajea/batez bestekoa	Lehorreko lurra (€/ha)	Aldearen portzentajea/batez bestekoa	Ureztalurrak/lehorreko lurra aldearen portzentajea	
IV.5.2	Caparroso eta beste batzuk	4.936	60	536	-34	821
II.2	Artaxoa eta beste batzuk	4.848	57	665	-18	629
IV.1	Berbintzana eta beste batzuk	4.163	35	752	-7	454
IV.5.1	Azkoien	3.689	19	818	1	351
X	Murillo, Santakara	3.218	4	647	-20	397
IV.3	Faltzes; Erriberri	2.864	-7	656	-19	337
IX	Pitillas eta beste batzuk.	2.819	-9	872	8	223
VIII	Uxue	2.593	-16	801	-1	224
VII	Beire	2.562	-17	840	4	205
II.1	Izarbeibar	2.324	-25	996	23	133
I	Izarbeibar	2.272	-26	877	9	159
V	Erriberri, Tafalla	2.243	-27	1183	46	90
III	Artaxoa	2.240	-27	670	-17	234
IV.4	Erriberri	1.936	-37	910	13	113
IV.2	Faltzes eta beste batzuk	1.903	-38	654	-19	191
VI	San Martin Unx	1.593	-48	1410	75	13
<b>Batez bestekoa</b>	<b>3.089</b>		<b>808</b>			<b>282</b>

Ikus daitekeen bezala, ureztalurretan bost sektore batez bestekoaren gainetik daude; hamaika sektore, berriz, batez bestekoaren azpitik. Batez bestekoarekin konparatuta dagoen aldea ehuneko +60tik ehuneko -48ra bitartekoa da.

Lehorreko lurren kasuan ere, dispersioa esanguratsua da, zeren eta ehuneko +48tik ehuneko -33ra bitartekoa baita: zortzi esparru batez bestekoaren gainetik daude eta beste zortzi azpitik.

Ureztalurren eta lehorreko lurren produktibitatean sektoreka gertatzen den aldea aztertuz gero, ikusiko dugu aldea oso nabarmena dela, igoera ehuneko 13tik ehuneko 821era bitartekoa baita.

Horrek guztiak erakusten digu aniztasun handia dagoela sektoreen datuetan.

**VI.2.4.2. Lortutako etekinak**

Aurreko atalekoa baino informazio konplexuagoa da lortutako etekinei dagokiena; izan ere, ureztalurren bihurtetako eta labore-aldaketak beraiekin dakarte, produkzioa aldatzearekin batera, produkzio-kostuak ere aldatzea. Horrenbestez, produktibitate gordinaren balioak izan duen gorakada ez da proportzionala enpresa-etekinekiko.

Zenbatespen hori egiteko, "eredutako ustiategi" baten kostuak ezartzen dira, kostu finkoak eta aztergai den laboreari egotz dakizkiokeen kostu aldakorrak ezarrita; horretarako, kontuan hartzen dira INTIAk edo departamentuak gomendatutako lan, produktu eta dosiak.

Hurrengo taulan sektoreka aurkezten ditugu egungo produkzioarako kalkulaturako etekinak eta eraldaketaren aurretiko laboreekin lortuko zen produktibiterako kalkulaturakoak.

Sektorea	Hektareak	Ureztalurretako balioa (€)	Lehorreko lurretako balioa (€)	Ureztalurrak-lehorreko lurak (€)	Aldearen ehunekoa
I Izarbeibar	1.128	846.720	204.134	642.586	315
II.1 Izarbeibar	1.051	751.425	216.467	534.958	247
II.2 Artaxoa eta beste batzuk	2.919	1.997.781	186.804	1.810.977	969
III Artaxoa	1.139	963.759	77.456	886.303	1.144
IV.1 Berbintzana eta beste batzuk	2.275	1.739.122	245.702	1.493.420	608
IV.2 Faltzes eta beste batzuk	897	508.584	71.768	436.816	609
IV.3 Faltzes, Erriberri	1.406	1.243.093	193.965	1.049.128	541
IV.4 Erriberri	2.567	1.570.623	418.447	1.152.176	275
IV.5.1 Azkoién	859	1.232.101	143.407	1.088.695	759
IV.5.2 Caparroso eta beste batzuk	1.030	1.633.388	79.347	1.554.042	1.959
V Erriberri, Tafalla	883	620.834	181.838	438.996	241
VI San Martin Unx	815	192.639	257.534	-64.895	-25
VII Beire	1.505	947.876	203.205	744.671	366
VIII Uxue	245	262.590	28.411	234.179	824
IX Pitillas eta beste batzuk	1.950	1.967.181	310.075	1.657.105	534
X Murillo, Santakara	1.099	1.551.585	149.440	1.402.145	938
<b>Guztira</b>	<b>21.767</b>	<b>18.029.301</b>	<b>2.967.998</b>	<b>15.061.302</b>	<b>507</b>

Taulatik ondorioztatzen denez, errentagarritasuna 3 milioikoa izatetik 18 milioikoa izatera pasatzen da, ehuneko 507ko igoerarekin.

Hektarea bakoitzeko balioa 136 eurotik 828 eurora pasatzen da.

Batez besteko emaitzak askotarikoak dira sektore desberdinetan, hurrengo taulatik ondorioztatzen den bezala.

Sektorekako batez besteko emaitzak, eraldaketa baino lehen eta hura egin ondoren.

Sektorea	Ureztalurrak (€/ha)	Aldearen portzentajea/batez bestekoa	Lehorreko lurak (€/ha)	Aldearen portzentajea/batez bestekoa	Ureztalurrak/lehorreko lurak aldearen portzentajea	
IV.5.2	Caparroso eta beste batzuk	1.585	91	77	-43	1.958
IV.5.1	Azkoien	1.435	73	167	23	759
X	Murillo, Santakara	1.412	71	136	0	938
VIII	Uxue	1.072	29	116	-15	824
IX	Pitillas eta beste batzuk	1.009	22	159	17	535
IV.3	Faltzes, Erriberri	884	7	138	1	541
III	Artaxoa	846	2	68	-50	1.144
IV.1	Berbintzana eta beste batzuk	764	-8	108	-21	607
I	Izarbeibar	751	-9	181	33	315
II.1	Izarbeibar	715	-14	206	51	247
V	Erriberri, Tafalla	703	-15	206	51	241
II.2	Artaxoa eta beste batzuk	684	-17	64	-53	969
VII	Beire	630	-24	135	-1	367
IV.4	Erriberri	612	-26	163	20	275
IV.2	Faltzes eta beste batzuk	567	-32	80	-41	609
VI	San Martin Unx	236	-71	316	132	-25
<b>Batez bestekoa</b>	<b>828</b>		<b>136</b>			<b>509</b>

Ikus daitekeen bezala, ureztalurretan zazpi dira batez besteko errentagarritasunetik gora daudenak, eta bederatzi, berriz, azpitik daudenak. Batez bestekoarekin konparatuta dagoen aldea ehuneko +91tik ehuneko -71ra bitartekoa da.

Lehorreko lurren kasuan, zortzi dira batez bestekoaren gaintiko errentagarritasuna dutenak, sektore bat batez bestekoan dago eta zazpi sektore, azkenik, batez bestekoaren azpitik daude. Aldea ehuneko +132tik ehuneko -53ra bitartekoa da.

Ureztalurren eta lehorreko lurren errentagarritasunean sektoreka gertatzen den aldea aztertuz gero, ikusiko dugu aldea oso nabarmena dela: ehuneko 1.958ko igoera batetik ehuneko -15eko jaitsiera batera.

Produktzioa aztertzean gertatu bezala, ikusten da sektore desberdinetan dispersio handia dagoela.

Nabarmena da lehorreko lurren sektore errentagarriena ureztalurretan errentagarritasun txiki-ena duena dela, eta eraldaketak emaitza negatiboa ekarri duela. Litekeena da emaitza horren azalpena egotea sektore horretan mahatsaren lanketak izan duen garrantzian (ehuneko 32), artoaren garrantzi txikian (ehuneko 3,3) eta lugorrien ehuneko handian (ehuneko 25).

Ureztatzaileen elkartek, labore batzuetarako, 2014ko emaitzei buruzko kalkulu bat eskuratu digu, eta emaitzak askotarikoak dira.



Erabilitako metodologian diferentzia txikiak badaude ere, ondoriozta daiteke gastuei buruzko kalkulua antzekoa dela, eta aldea diru-sarreretatik heldu dela, nagusiki 2014an prezioetan izandako aldaketarengatik.

Horri dagokionez, ikus daiteke zenbatekoa den zenbait produkturen prezioek 2009tik 2014ra izan duten aldea. Datuak nekazaritza-estatistikatik lortu ditugu:

Produktuen prezioak (2009-2014 aldia)						
	Euroak ehun kilogramoko					
	2009	2010	2011	2012	2013	2014
Garia	14,07	16,83	21,39	24,11	20,74	18,36
Arroza	43,87	45,00	33,06	30,05	29,00	28,19
Garagarra	12,50	17,05	20,00	23,06	16,97	16,33
Oloa	11,43	14,27	17,84	22,07	14,93	15,46
Artoa	14,47	16,75	22,51	22,79	21,60	17,58
Basartoa	12,90	19,50	22,65	24,34	19,67	17,43

Datu hauetatik ondoriozta daitekeen bezala, urteko aldea oso ere nabarmena da.

Etekinak kalkulatzeko, kontuan hartu behar dira, halaber, produkzioak urtero aldatzen direla klima-baldintza batzuen arabera, eta nekazariak askotan ezin dituela baldintza horiek aldatu. Hartara, esate baterako, INTIAk artoari buruz egindako azterlanetan, enpresa-etekinari buruzko zenbatespen bat egiten da (emaitzan ez dira kontuan hartu ez amortizazioa, ez norberaren obra ez norberaren kapitala) bost produkzio mailaren (11.213 kg/ha-tik 13.000 kg/ha bitarte) eta bost prezio-mailaren arabera (0,145 €/kg-tik hasi eta 0,228 €/kg bitarte). Bada, gehienekoak eta gutxienekoak kenduta, hektarea bakoitzeko 422,89 euro eta 1.097,31 euro bitarteko emaitzak lortzen dira.

Bestalde, diru-sarreretan ageri diren alde horiekin, funtsezko garrantzia dute nekazariak egindako inbertsioetatik heldutako gastuek, lehorreko lurra ureztaluz bihurtzearen ondoriozkoek; izan ere, diru-sarrera txikiak egon diren urteetan, oso nabarmena da amortizazioek izan duten garrantzia. Bistan da epe luzeagoak izateak urteko kostuak gutxitzen dituela.

Produktuen prezioetan eta haien aldaketetan ekoizleek eragiteko daukaten gaitasun txikia kontuan hartuta, bai eta klima-faktoreek urteko produkzioen bolumenean daukaten eragina ere, emaitzak baloratu ahal izateko ekitaldi batean baino gehiagotan egindakoen azterketa bat egin beharra dago.

#### VI.2.4.3. Enpleguaren gaineko eragina.

III. atalean, azpiegitura honek sortutako enpleguari buruzko azterlan osoa egiteko dauden mugak aipatu dira.

Ondoren, datu batzuk aurkeztuko ditugu, zeinak soilik nekazaritza-sektoreari buruzkoak baitira, beste sektore batzuetan (nekazaritza-industria, zerbitzuak...) eragindakoak kontuan hartu gabe.

INTIA azterlan teoriko bat egin dute, non eremu ureztagarrian eraldaketa baino lehen eta haren ondoren erabiltzen diren urteko lan unitateak aztertzen baitira.

Urteko lan unitatea da labore batek behar duen arduraldia, eta ardura horren orduen eta urteko jardunaldiari (1.826 ordu) dagozkion zatidurari dagokio.

Aurrekari horiekin, sektore bakoitzaren hedapenetik eta laboreetatik abiatuta, eraldaketaren aurretiko eta haren ondorengo emaitzak konparatzeko behar diren urteko lan unitateen zenbatespenak egin dira.

Aztertutako 22.292 hektareetarako lortu den emaitza da 230 urteko lan unitatetik 595 urteko lan unitatera pasa dela, ehuneko 159ko hazkundearekin.

Landa Garapeneko Departamentuak 2009-2012 urteetarako egindako azterlan bat badago, Nafarroako Nekazaritzaren Kontabilitate Informazioaren Sarearen (RICAN deitutakoa) datuetatik

abiatuta egindakoa, non eremu ureztagarriak ukitutako 22 ustiategiren lagin bat baitago; horietatik 12 ustiategietan ureztalurren azalera handitu da. Azterlan horrek beherakada orokor bat dektatzen du nekazaritzaren lehen sektoreko eskulanean, eta, aitzitik, igoera bat ureztalur gehiago duten ustiategien igoera bat.

Gure aldetik, ubidearen eremu ureztagarriak ukitutako herrietako nekazaritza-enpleguaren bilakaera aztertu dugu.

Nafarroako datuak Gizarte Segurantzaren webgunetik lortu ditugu; herrietakoak, berriz, Gizarte Segurantzari eskatu zitzaizkion.

Datuak aurkeztu baino lehen, bi zehaztapen egin behar dira:

- Erabilitako datuak urte bakoitzeko abenduaren 31ko afiliatuenak dira.
- Aldi horretan erregistro-irizpidea aldatu da; hartara, beren konturako langile diren nekazariak 2008an langile autonomotzat hartzen dira, eta 2009tik autonomoen azpi-atal bat badago, eta langile autonomoen sistema berezi (SETA) gisa jasotzen dira.
- Estatistikaren isilpekotasuna zaintzeko, datuak eman ditugu soilik haien maiztasuna bost baino gehiagokoa edo bostekoa denean; hori dela eta, herri batean bost afiliatu baino gutxiago daudenean, jo dugu, kasu guztietan, hiru direla Gizarte Segurantzaren kasuko araubidean afiliatutako pertsonak.

Honako hau da nekazaritza-enpleguaren bilakaera Nafarroa osorako:

Nekazaritzako araubide berezia			
Urtea	Norberaren kontura	Besteren kontura	Guztira
1999	2.641	8.001	10.642
2000	3.045	7.772	10.817
2001	3.562	7.465	11.027
2002	4.260	7.156	11.416
2003	4.965	6.878	11.843
2004	3.826	6.642	10.468
2005	4.100	6.349	10.449
2006	3.905	6.078	9.983
2007	3.819	5.795	9.614
2008	4.293	z.g.	
2009	5.001	5.087	10.088
2010	4.784	4.934	9.718
2011	4.890	4.789	9.679
2012	4.767	4.620	9.387
2013	3.809	4.520	8.329
2014	4.489	4.417	8.906
2014/1999	70%	-45%	-16%

Datu hauetatik ondorioztatzen denez, guztizko enpleguak ehuneko 16 egin du behera 1999tik 2014ra; halere, ikusten da jokabide desberdina dagoela enplegua norberaren konturakoa izan – ehuneko 45eko jaitsiera– ala besteren konturakoa izan –ehuneko 70eko igoerarekin–.

2005etik 2014ra aldea ehuneko 9,5ekoa da beren konturako langileen kasuan; ehuneko -30,4koa beren konturako afiliatuen kasuan, eta ehuneko -14koa guztizkoan.

Ukitutako 29 herriak direla-eta aztertutako datuak honako taula honetan erakusten ditugu:

Eremu ureztagarriko herria	2005eko abendua			2010eko abendua			2014ko abendua			2014/2005 aldea		
	Autonomoa (721)	Besteren kontura (611)	Guztira	Autonomoa (SETA)	Besteren kontura (611)	Guztira	Autonomoa (SETA)	Besteren kontura (161 eta 163)	Guztira	Autonomoa	Besteren kontura	Guztira
ADIOS	3	3	6	0	3	3	0	3	3	-3	0	-3
ANORBE	12	17	29	8	20	28	8	15	23	-4	-2	-6
ARTAXOA	20	9	29	19	14	33	19	18	37	-1	9	8
BEIRE	11	2	13	7	3	10	10	0	10	-1	-2	-3
BERBINTZANA	35	7	42	30	10	40	23	17	40	-12	10	-2
BIURRUN-OLKOTZ	8	1	9	9	0	9	8	0	8	0	-1	-1
CAPARROSO	108	96	204	77	91	168	74	111	185	-34	15	-19
ENERITZ	3	3	6	3	0	3	3	3	6	0	0	0
FALTZES	64	64	128	59	74	133	54	69	123	-10	5	-5
LARRAGA	54	116	170	45	116	161	37	139	176	-17	23	6
LEGARDA	3	3	6	0	3	3	0	3	3	0	0	0
MARTZILLA	20	14	34	19	35	54	17	33	50	-3	19	16
MENDIGORRIA	16	7	23	17	3	20	18	3	21	2	-4	-2
MIRANDA ARGA	17	29	46	13	22	35	10	25	35	-7	-4	-11
MURILLO EL CUENDE	33	8	41	18	7	25	14	8	22	-19	0	-19
MURILLO EL FRUTO	32	16	48	25	14	39	25	11	36	-7	-5	-12
MURUZABAL	3	3	6	3	0	3	0	0	0	-3	-3	-6
OBANOS	9	1	10	10	3	13	9	3	12	0	2	2
ERRIBERRI	53	18	71	43	19	62	42	22	64	-11	4	-7
AZKOIEN	58	122	180	74	106	180	73	101	174	15	-21	-6
PITILLAS	9	1	10	11	3	14	13	3	16	4	2	6
GARES	10	27	37	10	33	43	13	31	44	3	4	7
SAN MARTIN UNX	17	4	21	14	7	21	8	8	16	-9	4	-5
SANTAKARA	30	11	41	26	13	39	24	9	33	-6	-2	-8
TAFALLA	73	26	99	67	49	116	69	26	95	-4	0	-4
TIRAPU	3	3	6	5	0	5	3	3	6	0	0	0
UKAR	3	3	6	3	0	3	3	0	3	0	-3	-3
UXUE	10	0	10	11	0	11	11	3	14	1	3	4
UTERGA	3	3	6	3	0	3	3	0	3	0	-3	-3
<b>Guztira</b>	<b>720</b>	<b>617</b>	<b>1.337</b>	<b>629</b>	<b>648</b>	<b>1.277</b>	<b>591</b>	<b>667</b>	<b>1.258</b>	<b>-129</b>	<b>50</b>	<b>-79</b>
										<b>% -18</b>	<b>% 8</b>	<b>% -6</b>

Datuak aztertuta, ondorioztatzen da nekazaritza-sektoreko afiliatuen kopurua herri horietan 2005ean 1.337 pertsonakoa izatetik 2014an 1.258 pertsonakoa izatera pasa dela, ehuneko 6ko jaitsierarekin.

Hala eta guztiz ere, jaitsiera orokor horrek jokabide desberdinak dauzka autonomoetan – 720tik 591ra pasa dira, ehuneko 18ko jaitsierarekin– eta beren konturako langileetan –617tik 667ra pasa dira, ehuneko 8ko igoerarekin.

Laburbilduz, aipa dezakegu txosten honetan nekazaritza-enpleguari buruz aurkeztutako datuak partzialak direla, zeren eta batzuk okupazio-azterlanetatik (urteko lan unitateak) abiatuta egindako zenbatespenak baitira; besteak, berriz, lurraldearen zati bat ureztagarri duten herrietako Gizarte Segurantzako afiliatuei dagozkie. Logikoa denez, kasu honetan ez da kontuan hartzen beste herrietan bizi eta besteren kontura lan egiten duten pertsonen enplegua.

#### VI.2.4.4. Udalen diru-sarrerak

Eremu ureztagarrian dauden eskualdeko udalen diru-sarrerak nabaritu dute ureztalurrek lehorreko lurrek baino balio handiagoa dutela eta, horrenbestez, zergen bidezko diru-bilketa handiagoa dela eta herri-lurren esleipenen balioa handiagoa dela, ureztalurrak direnean.

Kontuan hartuta zerga-tasak entitate bakoitzak onesten dituela eta udal batzuek beren balorazio-ponentziak araudi berriaren arabera eguneratu dituztela baina beste batzuek ez, eraldaketatik sortutako diru-bilketa ahalmenari buruz hitz eginen dugu, lehorreko lurren eta ureztalurren katastro-balioetan oinarrituta.

29 udalen datuak "Trabajos Catastrales de Navarra, S.A." enpresa publikoak eman dizkigu, udal inbertsoreen katastroaren kudeaketan laguntzen baitu.

Eremu ureztagarriko 22.444 hektareetatik 3.215 herri-lurretakoak dira; horiek, logikoa denez, ez diote zergarik ordaintzen Udalari.

Hurrengo taulan, katastro-balioen aldea aurkeztuko dugu.

		Lehorreko lurak	Ureztalurrak	Aldearen ehuneko
Guztizko azalera: 22.444 ha	Araudi zaharra	14.230.148	61.966.425	
	Araudi berria	9.345.491	30.103.355	
	Honaino, guztira	23.575.639	92.069.781	291
Herri-lurrak, 3.215	Araudi zaharra	2.147.455	9.928.731	
	Araudi berria	971.744	3.395.842	
	Honaino, guztira	3.119.199	13.324.573	
<b>Gainerakoa, 19.229 ha</b>	<b>Guztira</b>	<b>20.456.440</b>	<b>78.745.208</b>	<b>327</b>

Hau da, lehorreko lurak ureztalur bilakatzeak berarekin dakarrela ehuneko 327ko igoera gertatzea katastro-balioan eremu ureztagarriko 19.229 hektareetan, herri-lur direnak kenduta.

Udalen diru-bilketen igoera erreala aplikatzen diren tasen arabera izanen da.

Bestalde, herri-lur horiek diru-sarrera handiagoak eragiten dituzte, zeren eta handiagoak baitira esleipendunek herri-lurren aprobetxamenduengatik egiten dituzten ekarpenak.

1.916 hektareatako datuak eskuratu ahal izan ditugu. Lehorreko lurren esleipen-prezioa, herrien eta lurren arabera, 33 €/ha-tik 178 €/ha-ra bitartekoak dira; ureztalurrenak, berriz, 165€/ha-tik 553€/ha-ra bitartekoak.

Egindako kalkuluen arabera, 1.916 hektarea horien diru-bilketa lehorrean 177.828 eurokoa izatetik 892.941 eurokora izatera pasa da; hau da, hektarea bakoitzeko 499 euroko batez besteko igoera egon da. Igoera hori 3.215 hektareei aplikatuz gero, urteko 1.603.537 euro ateratzen dira.

Kalkulu teoriko horietan, jakina, eragina dute udalek herri-lurretako loteak esleitzeko hartzen dituzten erabakiek, bai eta prezioak eguneratzeko behar duten denborak, zeren eta normalean epe luzeko emakidak izaten baitira.

### VI.3. UREZTATZEAREN KOSTUAREN ALDERAKETA

Ureztalur desberdinen ustiaketa-kostuaren datuak alderatzean, kontuan hartu behar dira, halaber, haien ezaugarriak (zabalera, ur-bolumena, ureztaketa mota, antzintasuna eta abar), zeren eta eragin nabarmena izan baitezakete kostuetan.

INTIAk azterlan konparatibo bat helarazi digu, 2014ko martxokoa, ubideko eremu ureztagariaren zabalpenean sartutako ureztalurren kostuei buruzkoa.

Jarduketa hori banatuta dagoen 19 eremuetatik, 13 lehorreko lurrenak eta ureztalur tradizionalenak dira eta 6 presio bidezko ureztalurrenak, eta horiek dira aztertu direnak.

Sei eremu horietarako, kostuak 2011ko kontsumoen arabera konparatu dira ubidearen sistematik etorriko liratekeenekin, ureztalur tradizionalen kostuak, horrenbestez, aztertu gabe.

Ureztalur hauen ustiaketa-kostu aipagarrienak honako hauei dagozkie: ureztatze-sarearen konponketei eta mantentze-lanei, administrazioari eta aseguruari, zaintzari eta uraren ponpatzearekin lotutako kostuei (energia eta ponpatze-estazioen konpontzea eta mantentzea). Horri dagozkionez, aipatu beharra dago nolako eragina daukan energiaren kostuak –zeinaren prezioa nabarmen igo baita azken urteetan– desnibel handiak gainditu behar direnean.

Ubidearen kasuan ustiaketa-kostuak txostenean jada aipatu direnak dira (ltoizko kanona, ubideko kanona eta ustiaketaren kanona).

Laburbilduz, datu hauetatik ondorioztatzen da ubidearen erabilerak kostu nabarmen txikiagoa eragiten duela, ehuneko 50 ingurukoa, ur bolumen handia erabiltzen dituzten ureztalurrek baino, eta hori nabarmenagoa da ponpatzearen altuera handia denean, energia-kostuek daukaten garrantzia dela eta.

Gainerako kasuetan, emaitzek, oro har, ez dute alde handirik erakusten.

Kasu guztietan, eragin handia dute ezarritako laboreek eta aurreikusitako ordezkoko laboreek, zeren eta horiek baitira kontsumitu beharreko ura determinatzen dutenak.

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2015eko irailaren 30ean

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK**

Kontuen Ganberak "Nafarroako ubidearen eremu ureztagarria" izenburupean egin duen behin-behineko txostena dela eta, honako alegazioak aurkeztu ditu Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilariak:

Gaur egun, Nafarroako Gobernurako 2015-2019 urteetarako programa akordioan, "azpiegituren" ataleko 3. puntuan jasotakoa betez, bai proiektua, bai eratorritako adierazle ekonomikoak berrikusten ari gara une honetan; hori dela eta, komenigarritzat jotzen da berrikuspen hori egin ondoren Kontuen Ganberak beste txosten bat egitea. Txosten hori bidezkoa den moduan eskatuko da.

Iruñean, 2015eko irailaren 28an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilaria: Isabel Elizalde Arretxea

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMAN-DAKO ERANTZUNA**

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko kontseilariak aurkeztutako alegazioak aztertuta, txostenean erantsi ditugu, uste baitugu ez diotela haren edukiari eragiten, eta behin-behineko txostena behin betikotzat jo dugu.

Iruñean 2015eko irailaren 29an

Lehendakaria: Helio Robleda Cabezas



